



ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

ematen ta zabaltzen

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y PETO DEMOGRÁFICO

 **MIGRAZIOARAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA**
**PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN**

■ EMAITZEN LABURPENA

BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

2024





Fitxa teknikoa*

- Landa-lanaren datak: 2024ko martxoaren 18tik maiatzaren 17ra.
- Inkesten kopurua: 1.200 (Konfiantza-maila = % 95, $Z = 1,96$ eta errorea = $\pm$ % 2,82).
- 18 urtetik gorako pertsonen etxeko egindako inkesta.
- Laginketa geruzatua, esleipen proportzionala erabiliz egindakoa, adinaren eta sexuaren arabera kuotekin.
- Inkestatuen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- 60 laginketa-puntu, 36 udalerritan (6 Araban, 16 Gipuzkoan eta 14 Bizkaian).

* Metodologiaren atalari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu eraskin metodologikoa.

1



Atzerritar jatorriko pertsonen etorrera



- a. Atzerritar jatorriko pertsonen presentzia arazotzat hartzea
- b. Atzerritar jatorriko pertsonen kopurua nola hautematen den

A) ATZERRITAR JATORRIKO PERTSONEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HARTZEA

Immigrazioa arazotzat hartzeak Euskadin izan duen bilakaera (bat-bateko erantzunak, erantzun iradokiak eta erantzun pertsonalak, %-tan) 2007-2024

1. g., 2. g., 27. g.

2024





Euskadin ditugun arazo nagusiak zein diren galdetuz gero, euskal gizarteak ez du uste immigrazioa gizarte-mailako arazoa denik. Euskal herritarrek uste dute badirela lehenetasun eta larritasun handiagoko beste gai batzuk. Biztanleriaren % 3,8k soilik uste du immigrazioa zuzenean eragiten dion arazoa dela, maila pertsonalean.

Bilakaerari dagokionez, joan den urtearekin alderatuta, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa apur bat handitu da (bai bat-bateko erantzunetan, bai iradokitako erantzunetan, bai erantzun pertsonaletan), eta 2019koen antzeko mailetan kokatu da. Nolanahi ere, 2008-2014 urteetako krisi ekonomikoa amaitu zenetik, immigrazioa arazo garrantzitsutzat ez hartzeko joerari eutsi zaio EAEn.

Euskadin ditugun arazoak (bat-batean emandako erantzunak, %-tan)

Erantzuna: Immigrazioa




Euskal biztanleriaren kezka nagusien artean (bat-bateko erantzunetan), ekonomiarekin (% 47,6), osasunarekin (% 46,0), etxebizitzarekin (% 39,9) edo langabeziarekin (% 24,8) lotutako gaiak daude. Hau da, funtsean, eguneroko bizitzan eragiten dieten gaiak


Alde horretatik, gutxi hartzen dute immigrazioa arazotzat. Biztanleriaren % 3,0k bakarrik aipatu du beste arazoen aurretik, eta % 9,1ek baino ez du aipatu hiru arazo garrantzitsuenen artean.

Migrazioari dagokionez, emakumezkoek eta gizonezkoek iritzi bera dute, eta ez dago generoaren arabera alde esanguratsurik.

Euskadin ditugun arazoak (erantzun iradokiak, %-tan)



Erantzuna: Immigrazioa





Immigrazioa arazo izan daitekeela iradokitzen denean, hau da, aukeren zerrenda baten barruan aipatzen denean, biztanleriaren % 10,0ek soilik uste du Euskadi ditugun arazo nagusietako bat dela. Datu hori perspektiban jartzearren, biztanleriaren bi heren inguruk inflazioa eta prezioen igoera aipatzen dituzte gaur egungo arazo nagusitzat (% 61,2). Horiez gain, osasuna (% 47,7) edo etxebizitza (% 44,1) dira, besteak beste, euskal herritarrek kezkatzen dituzten beste alderdi batzuk.

Bilakaerari dagokionez, ikusten dugu 2022ko eta 2023ko Barometroekin alderatuta —urte horietan elkartasuna handitu zen alderdi gehienetan, Ukrainako gerraren ondorioz—, immigrazioa arazotzat hartzen duten pertsonen ehunekoa pixka bat handitu dela, 2020. eta 2021. urteetako balioetatik hurbil egotearaino.

Oraingo honetan ere, migrazioaren pertzepzioari dagokionez, ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.

Hiru arazo pertsonal nagusiak (%-tan)

Erantzuna: Immigrazioa



Immigrazioak maila pertsonalean duen eraginari buruz galdetuta, biztanleriaren % 0,9k soilik aipatzen du beste arazoen aurretik, eta guztira % 3,8k baino ez du aipatu hiru arazo pertsonal garrantzitsuenen artean. Horrek esan nahi du igoera txiki bat egon dela iazkoarekin alderatuta, eta pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondoriozko krisi humanitarioaren aurreko joerara itzuli dela.


Arazo nagusiei dagokienez, euskal biztanleriaren ia erdiak adierazi du arazo ekonomikoak (% 49,8) edo osasunak (% 47,2) eragiten diotela, batez ere, maila pertsonalean.

Generoaren arabera, emakumeek eta gizonek antzera ikusten dute immigrazioa.

B) ATZERRITAR JATORRIKO PERTSONEN KOPURUA NOLA HAUTEMATEN DEN

Atzerritar jatorriko biztanleen kopuruaren pertzepzioa, datu ofiziala eman aurretik (%-tan), 2004, 2007-2024

3. g.



Datu erreala eman aurretik, erkidegoko etorkinen kopurua balora dezaten eskatuz gero, euskal biztanleriaren % 48k uste du nahikoa edo, are, gehiegi direla. Inkestatuen % 41,5ek uste du kopuru egokia direla, eta % 5,4k bakarrik uste du ez direla nahikoa edo, are, gutxiegi direla.


2012-2014 urteetan, atzerritar jatorriko etorkinak nahikoa edo gehiegi zirela uste zuten pertsonen kopuruak gora egin zuen EAEn (2012an sartu zen *nahikoa* kategoria). Alabaina, zifra hori jaisten joan da 2015etik aurrera, eta % 10,2koa izan da 2022an (serie osoko daturik txikiena, eta oso testuinguru atipikoari dagokiona). Azken bi urteetan zifra horrek gora egin du berriro, egungo % 24,5eraino.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, emakumezkoen ehuneko nabarmen handiagoak uste du atzerritar jatorriko pertsona gehiegi daudela (% 30,5), eta gizonezkoek, aldiz, neurri handiagoan hautematen dute migratzaile kopurua egokia dela (% 48,7).

Atzeritar jatorriko biztanleen kopuruaren pertzepzioa eta Euskadin erroldatutako atzeritar jatorriko biztanleen benetako kopurua (%-tan), 2007-2024

4. g.

■ Atzeritar jatorriko biztanleen ehunekoaren pertzepzioa ■ Benetako ehunekoa



Euskal gizartearen pertzepzioa eta atzeritar jatorriko pertsonen benetako kopurua alderatuz gero, argi ikusten da euskal gizarteak benetan dena baino handiagoztat duela migrazio-fenomenoa. Izan ere, pertzepzio horrek –biztanleria osoaren % 24,2 direla uste dute– ia bikoiztu egiten du estatistika ofizialetan erroldatutako eta erregistratutako atzeritar jatorriko pertsonen kopurua (% 13,2).


* Duela gutxi, Estatistikako Institutu Nazionalak biztanleen proportzioa kalkulatzeko metodologia aldatu du. Aurrerantzean, udal-erroldatik ateratako datuak erabili beharrean, zenbatespen estatistiko baten bidez lorturiko zifrak argitaratuko dira.

Datuek erakusten dutenez, azken boladako fenomenoaren izateak urrun, etorkinen ehunekoa gaindimentsionatzeko joera hori konstantea izan da urteetan zehar. Hala ere, 2024ko datua serie historiko osoko handiena izan dela nabarmendu behar da, eta aurreko urtearekin alderatuta 2,8 puntuko igoera izan duela.

Generoaren arabera, aurreko urteetan bezala, emakumezkoen artean gehiago dira atzeritar jatorriko pertsonen presentzia handiagoztat jotzen dutenak (% 28,2), gizonezkoen artean baino.

Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez, behera egingo du... ? (%-tan), 2017tik 2024ra arteko bilakaera

23. g.




Immigrazioak datozen bost urteetan izan dezakeen bilakaerari dagokionez, euskal gizartearen zati handi batek (% 82,8k) uste du gora egingo duela eta atzerritar jatorriko pertsonak etortzen jarraituko dutela. Datu horiek aurreko 2023ko Barometroko datuekin alderatuz gero, argi ikusten da uste hori dutenen ehunekoa ehuneko hamar puntu inguru igo dela azken urtean —2023an % 73,0 izatetik 2024an % 82,8 izatera—, eta, hala, 2022 baino lehenagoko joerara itzuli dela.

Oro har, datu horiek adierazten dute euskal gizarteak uste duela atzerritar jatorriko biztanleriaren kopurua handitzen joango dela. Izan ere, bi hamarkada pasatxoan, immigrazioak ezohiko fenomeno izateari utzi dio, eta egiturazko alderdi bihurtu da.

Kasu honetan, alde nabarmenak daude emakumezkoen eta gizonezkoen artean.

Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (%-tan)

24. g.



Euskadiko etorkinen kopuruak hazten jarraituz gero, zer jatorri izango duen galdetzen denean, gehienek magrebtarrak aipatzen dituzte (% 87,3). Atzetik, Saharaz hegoaldeko Afrikatik (% 76,4) eta Latinoamerikatik (% 59,8) etorritakoak aipatzen dituzte.

Euskal gizartearen uste hori ez dator bat datu ofizialek islatzen duten errealitatearekin; izan ere, azken urteotan EAEra etortzen ari diren atzerritar jatorriko biztanle gehienak latinoamerikarrak dira.

Oso gutxi aipatzen dituzte Europar Batasuneko (% 2,4) edo Asiako (% 10,3) etorkinak.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, kasu honetan ere ez dugu ikusten alde esanguratsurik dagoenik gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

2





Immigrazio-politika

- a. Sartzea, bertan jarraitzea eta kanporatzea
- b. Egoera administratibo irregularrean dauden etorkinekiko politika
- c. Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonetikiko politika
- d. Bakarrik dauden atzerritar adingabeekiko politika

A) SARTZEA, BERTAN JARRAITZEA ETA KANPORATZEA

Immigrazio-politika (%-tan)

9. g.



Arreta elementu administratiboagoetan jarritz, euskal biztanleriaren % 24,6 etorkinak sartzeko legezko oztoporik ez jartzearen aldekoa da. Bestalde, % 70 etorkinak sartzearen alde dago, baina baldintza jakin batzuk betez gero: lan-kontratu bat izatea (% 52,8) edo beste lege-baldintza batzuk betetzea (% 17,2). Biztanleriaren % 1,4k soilik debekatuko luke erabat etorkinen sarrera.

Oro har, ikusten dugu euskal gizartea atzeritar jatorriko pertsonei sartzen uztearen alde dagoela, baina sartzeko baldintzak lan-merkatuaren beharrekin lotzen dituela. Bilakaera historikoaren datuek erakusten dutenez, pertzepzio hori izan da nagusi azken bi hamarkadetan.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, estatistikoki ez dago alde esanguratsurik. Sartzeko politikei dagokienez, emakumezkoek eta gizonezkoek antzeko iritzia dute.


** 2007-2011 Barometroetan: Inolako lege-eragozpenik gabe sartzen uztea; lan-kontratua dutenei soilik sartzen uztea; atzerriko etorkinei sarrera erabat debekatzea.*

B) EGOERA ADMINISTRATIBO IRREGULARREAN DAUDEN PERTSONEI LOTURIKO POLITIKA

Zure ustez, zer egin beharko luke gobernuak bizileku-baimenik ez duten etorkinekin? (%-tan)

10. g.

- Guztiak erregularizatu, paperak eman
- Lana dutenak bakarrik erregularizatu
- Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko
- Guztiak kanpora bidali
- Ed/Ee



Emakumezkoak

7,5

Gizonezkoak

5,2


Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen erregularizazioari dagokionez, euskal gizartea, oro har, alde ageri da (biztanleriaren % 82,2 erregularizatzearen alde dago, baldintzak jarrita edo jarri gabe). Ildo horretatik, euskal biztanleriaren erdiak baino gehixeagok (% 50,8) uste du lan-kontratua duten pertsonak soilik erregularizatu beharko lirатеkeela, eta gizartearen beste heren bat da (% 31,4) egoera administratibo irregularrean dauden pertsona guztiak erregularizatzearen aldekoa, haien egoera edozein dela ere. Bestalde, euskal herritarren % 6,4k uste du egoera horretan dauden pertsona guztiak kanporatu beharko lirатеkeela, eta % 6,1ek uste du beren herrialdera itzultzeko baliabideak eman beharko litzaizkiekeela.

lazko barometroarekin alderatuta, ez dago aldaketa nabarmenik.

Galdera horren inguruan, emakumezkoen artean nabarmen handiagoa da egoera administratibo irregularrean dauden etorkin guztiak kanporatzearen aldeko jarrera (% 7,5), gizonezkoen artean baino.

C) BABESA EDO ASILOA ESKATZEN DUTEN PERTSONEI LOTURIKO POLITIKA

Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (%-tan)



Ukrainako gerrak eragindako larrialdi soziala baretu orduko, asilo eskatzaileekiko eta nazioarteko babesa eskatzen dutenekiko ezohiko irekierak atzera egin du. Eta atzeraldi hori bereziki nabaria da jarrera irekien kasuan: 2024an biztanleriaren heren bat dago etorkinak murrizketarik gabe hartzearen alde (2022an baino 19,4 puntu inguru gutxiago).


Bestalde, gizartearen % 48,3 harreraren alde dago, baldin eta egiaztatzen bada pertsona horiek benetan jazartzen ari direla, eta % 15,1, berriz, kuotetan oinarritutako harreraren alde dago.

Generoaren arabera, kopuruetan desberdintasun txiki batzuk dauden arren, ezin dugu esan estatistikoki esanguratsuak diren aldeak daudenik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Antzeko pertzepzioak dituzte.


D) FAMILIA-ERREFERENTERIK EZ DUTEN ATZERRITAR ADINGABEEI LOTURIKO POLITIKA

Ziur asko, badakizu batzuetan **adingabeak** iristen direla atzeritik Euskadira, **senide edo pertsona heldu batek lagundu gabe**; hau da, tutore edo arduradunik gabe. **Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan?** (%-tan)

13. g.



Emakumezkoak



Gizonezkoak



Datu horiek iaz lortutakoekin alderatuz gero, ikusten dugu kolektibo horrekiko jarrera solidarioenak pixka bat igo direla (6 puntu gehiago, pisuak ematearen alde), kritikoenen edo kontrakoenen aldean (2,1 puntu gutxiago, itzultzearen alde).

EAEra iristen diren familia-erreferenterik gabeko atzeritar jatorriko adingabeei dagokienez, euskal gizartearen gehiengoak enpatizatzen du haien egoerarekin, eta uste du euskal administrazioek arreta eman behar dietela. Baina badira ñabardura batzuk. % 39,5 kupo batera iritsi arte artatzearen aldekoa da, eta % 36,4, berriz, tutoretzapeko etxebizitzak edo egoitzak ematearen aldekoa. Aitzitik, % 20,9k uste du jatorrizko herrialdera itzularazi beharko lirakeela.

Datuak generoaren arabera bereiziz gero, ikus daiteke emakumezkoen artean nabarmen handiagoa dela adingabe horiek jatorrizko herrialdera itzularaztearen aldeko jarrera (% 23,9).


3



Eskubideak eta zerbitzuak

Eskubideak eskuratzea eta egoera administratiboa (%-tan)

17. g.



Etorkinek eskubide eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzeari dagokionez, bertako biztanleriak ez du iritzi bera eskubidearen edo zerbitzu guztiei dagokienez.


Hala, euskal gizartearen gehiengoak unibertsaltzat hartzen ditu osasuna (% 75), hezkuntza (% 72,7) eta, neurri txikiagoan, laguntza juridikoa (% 56,6) izateko eskubideak. Eta horrenbestez, eskubide horiek eskuratzeko aukera etorkin guztiek izan beharko luketela uste du, haien egoera administratiboa erregularra izan ala ez.

Aldiz, beste eskubide batzuei buruz galdetuz gero, hala nola boto-eskubideaz, familia berrelkartzekoaz, babes ofizialeko etxebizitza edo gizarte-laguntzak lortzeaz, pertzepzio hori aldatu egiten da. Halakoetan, euskal herritar gehienek uste dute eskubide horiek mugatuta egon behar luketela, egoera administratibo erregularrean daudenei.

Eskubideak eskuratzeko lehentasuna (%-tan)



19. g.

2024




Emakumezkoak

Gizonezkoak



■ Bertako jendeak lehentasuna izan behar du, immigranteen aurretik.
■ Pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak, bertakoak edo immigranteak izan.
■ Ed/Ee



Eskubide sozialetarako sarbidea nola kudeatu beharko litzatekeen galdetuta, pertsona guztiek sarbide bera izan beharko luketen edo autoktonoek etorkinen gainetik lehentasuna izan beharko luketen galdetuta, hiru euskal herritarretatik bik uste dute (% 64,6), jatorria edozein dela ere, pertsona guztiak berdina direla, eta, beraz, zerbitzu berberak eskuratzeko aukera izan beharko luketela, hala nola osasun-laguntza, gizarte-laguntzak edo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko.

Illo horretatik, datu horiek iazkoekin alderatuz gero, ikusten dugu pertsona guztiek sarbide bera izan beharko luketela uste dutenen ehunekoa pixka bat txikitu dela. Eta planteamendu horren aurrean, bertako biztanleek lehentasuna izan behar dutela uste duten pertsonen ehunekoa handitu egin da, % 34,4raino.

Datuok generoaren arabera aztertzean, gizarte-zerbitzuei dagokienez, ikusten dugu emakumeen artean ohikoagoa dela autoktonoek lehentasuna izatearen aldeko joera (% 40,0), gizonezkoen artean baino (% 28,3).

4




Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak

- a. Ekonomian dituen ondorioak
- b. Hizkuntzan eta identitatean dituen ondorioak
- c. Ongizatean dituen ondorioak

A) EKONOMIAN DITUEN ONDORIOAK

6.a, 6.c, 6.e, 21.jg.





Etorkinen etorrerak ekonomian izan ditzakeen ondorioak aztertuta, oro har, euskal biztanleriak positiboki baloratzen du etorkinek ongizate kolektiboan egiten duten ekarpena. Hala, hamarretik batek uste du haien presentzia funtsezkoa dela zenbait sektoretan (% 74,9), eta % 66,2k uste du immigrazioa lagungarri dela ekonomiak hobera egiteko.

Aldi berean, euskal biztanleriak ez dizkio biztanleria etorkinari egozten langabeziaren igoera eta soldaten jaitziera, hurrenez hurren, % 68,2 eta % 69,6 ez baitaude ados iritzi horiekin. Aitzitik, herritarren ustez, prozesu sistemikoak eta egiturazkoak dira.

Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko (%-tan)

6.c.g.

2024



Immigrazioaren ekarpen ekonomikoarekin jarraituz, lau euskal herritarretik hiruk uste dute atzerritar jatorriko pertsonen lana funtsezkoa dela gure ekonomiaren sektore jakin batzuetan. Bestalde, % 15,0 bakarrik dago baieztapen horren aurka.



Historiari begiratuz gero, aurreko galderaren datuekin gertatzen zen bezala, aldeko jarreraren ehuneko hori nabarmen jaitsi zen krisialdi ekonomikoaren testuinguruan (2014an, % 30,4ra iritsi zen). Adierazle ekonomikoen hobekuntzak immigrazioaren ikuspegi funtzionalista eta utilitaristara itzultzea ekarri zuen.

Analisi estatistikoak generoaren arabera alde esanguratsuak erakusten ditu. Hala, gizonezkoen artean gehiago dira baieztapen horrekin bat datozenak (% 74,9), eta emakumezkoen artean, gehiago ageri dira zalantzati (% 9,9) edo aurka (% 18,1).

Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du (%-tan)

6.a g.

2024




Langabeziarekin gertatzen den bezala, euskal herritar gehienek ez dute uste etorkinek soldatetan eraginik izango dutenik. Hala uste dute inkestan parte hartu duten hamar pertsonatik seik. Bestalde, % 18,1ek migrazioa eta soldaten jaitsiera lotzen ditu, eta biztanleriaren % 8,7k zalantzak ditu.

Grafikoko datuek erakusten digutenez, krisi ekonomikoaren amaieraz geroztik euskal gizarteak baieztapen hori baztertu du, eta, hala, 2022an, biztanleriaren % 81,0k ukatzen du. Ildo horretatik, aurkako pertsonen ehunekoa pixka bat murriztu da azken bi urteetan, eta 2020ko balioetara itzuli da, nahiz eta gizarteko sektore zabal baten iritzia den oraindik ere.

Alderdi horri buruz galdetuta, emakumezko askoz gehiagok adierazten dute iritzia zehatzik ez dutela edo nahiago dutela iritzirik ez eman (% 5,4), gizonezkoekin alderatuta (% 1,8).

B) HIZKUNTZAN ETA IDENTITATEAN DITUEN ONDORIOAK

25. g.



EAEn, immigrazioari buruzko eztabaida soziala ez da erlazionatzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida soziopolitikoarekin. Bereizketa horren ondorioz, oro har, euskal gizartean ez da sortzen immigrazioa eta identitatea lotzen dituen pertzepzio negatibo nabarmenik.


Euskal biztanleriaren gehiengo zabalak ez du uste etorkinen etorrerak euskal identitatea galtzea eragingo duenik (%75,3) edo abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko dituenik (%70,1).

Hizkuntzari dagokionez, % 64,7k ez du uste immigrazioak euskararen garapena geldiaraz dezakeenik, eta % 62,2k ez du uste eraginik izan dezakeenik euskararen erabilera eta garapena murrizteko, gaur egun gehiengoa den eremuetan.

C) ONGIZATEAN DITUEN ONDORIOAK

Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioen pertzepzioa, Otik (negatiboa) 10era (positiboa)

28. g.



Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioak Otik (oso negatiboak) 10era (oso positiboak) baloratu ditzan eskatuta, euskal biztanleriak 5,68 puntu inguruko batez besteko balorazioa eman die. Hala, 2024an datuek adierazten dute ikuspegi pixka bat baikorragoa dagoela etorkinen ekarpen globalari buruz.

Zifra hori perspektiban jartzen badugu, atzerakada txiki bat ikusten dugu azken urteetako goranzko joerarekin alderatuta. Hala ere, urte batzuk



gehiago atzera egiten badugu eta egoera orokorrari begiratzen badiogu, ikusten dugu, jaitsiera hori gorabehera, euskal gizarteak immigrazioarekiko duen pertzepzioa nabarmen hobetu dela bi hamarkada hauetan, batez ere atzeraldi ekonomikoaren urteetatik.

Generoaren arabera, azken urte honetan, gizonezkoek nabarmen gehiago balioesten dituzte immigrazioaren ondorio positiboak (5,97 puntu), emakumezkoek baino.

Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek (%-tan)

21.kg.

2024



Etorkinen etorreraren inguruan azaleratzen den beste gai bat da immigranteek EAEko (eta Europako) biztanleria-piramidean izan dezaketen eragina, gero eta zaharragoa den gizarte baten arazoak konpontzen lagundu baitezake. Gai horri buruz galdetuta, hamar euskal herritarretik zazpik uste dute immigrazioak eragin positiboa izan dezakeela horri dagokionez, eta % 9,8k soilik uste du kontrakoa.

Aurreko beste adierazle batzuekin ikusten genuen bezala, hemen ere agerikoa da herritarren pertzepzio hori nahiko orokorra dela, 2015etik pixkanaka handitzen joan baita, 2014an atzerakada garrantzitsu bat izan ondoren.

Estatistikaren ikuspegitik, gizonezkoen artean nabarmen gehiago dira etorkinen etorrerak biztanleriaren zahartzearen arazoak arindu ditzakeela uste dutenak (% 74,0), emakumezkoen artean baino.

5




Bizikidetza-ereduak eta kultura-ereduak mantentzea

- a. Bizikidetza-ereduak
- b. Kultura-ereduak mantentzea

A) BIZIKIDETZA-EREDUAK

Bertako eta atzerritar jatorriko pertsonen arteko bizikidetza-giroa eta harremanak udalerrian edo auzoan,
0tik (oso txarra) 10era (bikaina)

7. g.




Udalerri-mailan bertako eta atzerritar jatorriko pertsonen arteko bizikidetza-giroa 0tik (oso txarra) 10era (bikaina) baloratu dezan eskatuta, euskal biztanleriak 6,05 puntuko batez besteko balorazioa eman dio.

Aurreko urteekin alderatuta, 2024ko datuek atzerakada argia adierazten dute. Batez besteko balorazioa 0,7 puntu jaitsi da iaztik, eta 2017ko balioetatik hurbil dago (6,00 puntu).

Generoaren arabera, gizonezkoek positiboago irizten diote bizikidetza-giroari (6,20), emakumezkoek baino (5,91).

Alderdi kulturalak (%-tan)

21.b, 21.c, 21.e, 21.h.g.




Bizikidetzarekin eta kulturarekin loturiko alderdiekin jarraituz, inkestatuen % 89,2k uste du hobea dela guztiok, etorkinek nahiz autoktonoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Euskal biztanleriaren %59,2k dio beste etnia batzuetako immigrante atzerritarrek aberastu egiten dutela Euskadiko bizitza kulturala; aitzitik, %17,2k ez du uste hori horrela denik.

Bestalde, euskal biztanleriaren iritzia banatuta dago, guztiok ohitura eta usadio berberak izatea hobea dela uste dutenen (% 39,3) eta ez dutenen (% 44,1) artean. Bestalde, biztanleen bi herenek ez dute uste atzeritar jatorriko pertsonen erlijio-praktikek arriskuan jartzen dutenik euskal gizartearen bizimodua (% 69,4).

Bizikidetza-ereduak (%-tan)

21.a, 21.g, 21.i, 21.lg.



Bertako biztanleek aniztasunari buruz egiten duten iritziarekin jarraituz, euskal gizartearentzat oro har, *a priori*, bizikidetzarako ahaleginak partekatua izan behar du (% 83,3).

Hala ere, gehiengoaren iritziz, egokitzeko ahaleginak handiagoa izan behar luke etorkinen artean (% 82,0). Izan ere, konparazioz, oso pertsona gutxik uste dute bertako biztanleek egin behar luketela ahalegin hori (% 19,3).



Horrela, bada, eta aniztasunaren kudeaketa horretan sakonduz, hiru euskal herritarretik bik uste dute etorkinek alde batera utzi behar lituzketela gure legediarekin bat ez datozen beren erlijioa edo kulturako alderdiak (% 65,9).

Horrela, ikusten dugu euskal biztanleria *nolabaiteko asimilazionismoan* oinarritutako bizikidetza-eredu baten alde ageri dela, hots, migratzaileak biztanleria autoktonoaren ohituretara egokitzearen alde.

Etorkinen seme-alabak, hemen,
Euskadin jaiotakoak, **Euskalduntzat**
har daitezkeela uste duzu? (%-tan)

38. g.

2024




Azken hamarkadetako migrazio-fluxuen ondoriozko aldaketen artean, *bigarren belaunaldiak* sortu izana da garrantzitsuenetako bat (nahiz eta izendapen hori okerra izan). Hau da, atzeritar jatorriko gurasoak dituzten baina Euskadin jaio diren pertsonak agertu izana.

Pertsona horiez duen pertzepzioaz galdetuta, euskal gizartearen gehiengoak uste du euskal herritartzat hartu beharko liratekeela, Euskadin jaiotzeagatik (% 87,7). Hori izan da pertzepzio nagusia urteetan zehar, Ukrainako gerraren hasierarekin bat datorren gorakadaren batekin.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, estatistikoki ez dago alde esanguratsurik.

Esan al daiteke pertsona bat euskalduna dela... ? (%-tan)

41. g.



Aurreko datuaren ildotik, euskal biztanleriarentzat, pertsona bat *hemen jaio izana* da hura euskalduntzat hartzeko faktore nagusia (% 87,7). Horren ondoren, beste batzuk daude, hala nola euskaraz hitz egitea (% 59,3), euskal kultura maitatzea (% 50,7) edo hemen urte askoan bizi izatea (% 48,9). Ildo horretatik, interesgarria da egiaztatzea euskal biztanleriak, Euskadin jaio izana ez ezik, hizkuntza eta kultura hartzen dituela integrazioaren oinarritzat.


Era berean, azpimarratu behar da, norbait euskal herritartzat hartzeko arrazoi nagusitzat Euskadin jaio izana aipatzen bada ere, herritar gehienentzat horrek ez duela esan etorkinak ezin diren iritsi euskalduntzat hartuak izatera (% 86,6).

Azkenik, nabarmentzekoa da galdera horri erantzuteko zailtasunak dituztenen edo erantzun nahi ez dioten enbunekoak, handi samarra baita.

B) KULTURA-EREDUAK MANTENTZEA

Atzeritar jatorriko biztanleriaren kultura-ereduekiko irekiera-maila (%-tan)

20. g.




Atzeritar jatorriko pertsonak finkatzearen eta haien ezaugarri kultural batzuk mantentzearen ondorioz gertatu ohi diren egoera berriei dagokienez, biztanleria autoktonoak haiekiko duen irekiera-maila aztertzen badugu, agerikoa da alderdi exotikoenekin loturikoak direla onarpen handienekoak, hala nola jatetxeen (% 80,3), saltokien (% 79,7) eta elikadura-establezimenduen (% 73,0) irekiera.

Bestalde, irekiera hori murriztu egiten da beste alderdi kultural batzuei buruz galdetzen dugunean, ezaugarri ez hain azalekoez, baizik eta sakon eta funtsezkoen dihardugunean. Esate baterako, espazio publikoetan egoteaz (% 64,8), beren hizkuntzan hitz egiteaz (% 63,6) edo tenplu erlijiosoak eraikitzeaz (% 47,4) dihardugunean.

Azkenik, ikastetxe propioak irekitzeaz (% 34,2) edo jatorrizko herrialdeetan bezala janzteaz (% 37,1) dihardugunean, gehiago dira jokabide horiek gaizki ikusten dituztenak, ongi ikusten dituztenak baino.

Euskal gizartearen ekarpena atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzean, Otik (oso txarra) 10era (oso ona)

45. g



Euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzearen arloan egiten duen ekarpena Otik (oso txarra) 10era (oso ona) baloratu dezaten eskatuta, euskal herritarrek batez beste 5,71 punturekin baloratu dituzte beren ahaleginak.

Hortaz, biztanleriak orain arte egindako ahaleginak onesten dituela ikusten dugu. Hala ere, abiapuntu gisa, hobetu daitekeen balio bat da. Ikusteko dago, beraz, zer bilakaera izango duen Barometroaren hurrengo edizioetan.

Generoaren arabera, gizonezkoek nabarmen hobeto baloratzen dute euskal gizarteak atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzearen arloan egiten duen ekarpena (5,90).


6



Harremanetarako espazioak eta sinpatia

Jatorriaren arabera sinpatia-maila: Otik (sinpatiarik ez) 10erako (sinpatia handia) eskala

22. g.



EAEko biztanleriak atzeritarren jatorri batzuekiko duen sinpatia-mailari buruz galdetzean (talde-giroaren adierazle bat da hori), ikus dezakegu ia kolektibo guztien batez besteko balioak batezbestekoaren gainetik daudela; 4,9 eta 6,7 artekoak dira. Aurreko urteko datuekin alderatuz gero, kolektibo guztien batezbestekoak nabarmen jaitsi dira.


Batez besteko puntuazioen arteko aldeak handiak ez diren arren, Mendebaldeko EBtik eta Argentinatik etorritako pertsonen sinpatia gehiago dagoela nabarmentzen da (6,7 bi kasuetan). Horien atzetik daude Nikaragutik, Hondurastik, Guatemalatik, Koloniatik, Perutik, Ekuadortik eta Paraguitik etorritakoak, 6,4ko puntuazioarekin. Brasil, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Txina jatorri dutenek puntuazio bera dute: 10etik 6,3.

Bestalde, jatorri marokoarra, aljeriarra edo, oro har, magrebtarra duten pertsonen sinpatia gutxiago dago, eta tarte handia ez badago ere, puntuaziorik txikiena dute (4,9).

BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK

Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... (%-tan)

16. g.



Grafiko honetan, Bogardusek (1947) diseinatutako Distantzia Sozialaren eskalako itemak aurkezten dira, beste talde batzuetako kideekiko kontaktu-maila onargarria zenbatekoa den neurtzeko. Tresna erabilgarria eta erraza da kanpotaldeekiko dauden jarrerak neurtzeko.

Biztanleria autoktonoaren eta etorkinen arteko balizko bizikidetzari eta harremanei dagokienez, irekiera handiagoa ikusten da hain intimoak ez diren espazioetako harremanak planteatzen direnean, hala nola lan egitean edo ikasteen (% 89,8ko onarpena), atzerritar jatorriko pertsona bat laneko nagusia izatean (% 86,4), edo seme-alabek lagun etorkinak etxera eramatean (% 82,1).

Baina harreman-esparru intimoenetan sakontzean, onarpen-maila jaitsi egiten da. Hala, “zure semearen/alabaren bikotekidea jatorriz atzerritarra izatea” % 79,7k onartuko luke, “seme-alabak etorkinen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea” % 64,7k onartuko luke, eta, azkenik, “etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea” biztanleriaren % 60,8k onartuko luke; % 34, berriz, hori saihesten saiatuko litzateke edo gaitzetsi egingo luke.


7



Estereotipoak

Estereotipo/aurreiritziak negatibo nagusiak (%)

6.a.g., 6.b.g., 6.g.g., 6.h.g., 6.i.g., 6.j.g., 6.k.g., 6.l.g., 6.m.g., 21.d.g., 21.e.g., 21.f.g., 21.j.g., 21.m.g.



Euskal biztanleriari etorkinei buruz dauden estereotipo edo zurrumurruei buruz zer uste duten galdetu zaionean, ikusten da iritzi horiekin ados dauden pertsonak kasu batean ere ez direla gehiago horien aurka daudenak baino.

Hala ere, funtsatu gabeko sinesmen horiek gizartean duten hedaduran sakonduta, ikusiko dugu euskal gizartean errotuen daudenak hauek direla: “onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik”, “segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu” edo “matxismoa areagotzen du”; ideia horiekiko adostasun-maila % 35,0 eta % 37,7 artekoa da. Hala ere, garrantzitsua da zehaztea hamar pertsonatik lauk baieztapen horien aurkako jarrera argia dutela.

Aitzitik, gutxien errotuta dagoena “lana kentzen digute” da; horrekiko adostasun-maila % 14,1koa da, hurrenez hurren. Azken zurrumurru horrek sortzen du desadostasunik handiena (% 74,6).

8




Tolerantzia-indizea

Tolerantzia-indizearen bilakaera

Tolerantzia-indizean azken urte hauetan izandako emaitzak oso baldintzatuta eta lotuta egon dira dinamika makroekonomikoekin. Hala, hedapen ekonomikoko garaietan puntuazioak handiagoak izan ohi dira, eta krisi-garaiei, berriz, konfiantza-galera eta atzerritar jatorriko pertsonetikiko tolerantzia txikiagoa lotzen zaizkie. Lotura hori immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren hasierako faseetan dauden gizarteetan gertatzen da, hala nola euskal gizarteak.


Hala ere, azken urteotan, bi egoera berezi gertatu dira gure inguruan, eta horiek eragina izan dute edo eragina izaten ari dira euskal gizarteak

atzerritar jatorriko pertsonetikiko duen jarreraren: COVID-19ak eragindako krisiaz eta Ukrainaren inbasioaren ondorioez ari gara. Orain, badirudi, COVID-19ak eragindako osasun-krisia gainditu denean, eta gatazka kronifikatu ondoren eta jada gizarte-larrialdiko egoerarik ez dagoenean Ukrainatik asilo eske jendea etortzeagatik, lehengo jarreretara itzuli dela euskal gizarteak; hala, aurtun 2019ko 60,67 puntuen eta 2020ko 65,00 puntuen arteko balioak erregistratu dira. Aldaketa horretan, agian eragina izango zuten Europako hauteskundeak eta Estatu Batuetako hauteskundeak aurreko debaiteek, immigrazioa arretagune bilakatu baitute.




Irekitasun pertsonalaren eta gizartearen irekitasunaren pertzepzioa (0tik 10 puntura)

Zeure burua



Euskal gizartea




Galdetutako pertsonak beren buruaz eta euskal gizarteaz egin duten autoebaluazioari dagokionez, ikus daiteke bi puntuazioak 2024ko tolerantzia-indizearen puntuaziotik hurbil daudela, goitik zein behetik: pertsonak beren buruari eman dioten balorazioaren eta euskal gizarte osoari eman diotenaren artekoa da tolerantzia-indizearen puntuazioa (63,54 puntu). Ohikoa denez, pertsonok iritzi hobea dugu geure buruaz, besteak epaitzen ditugunean baino.

2023arekin alderatuta, aipagarria da autopertzepzioa jaitsi egin dela –7 punturen azpitik dago– eta pandemia aurreko mailetara itzuli dela.

Nolanahi ere, pertsonak beren buruarekiko duten ikuspuntu kognitiboak, atzeritar jatorriko pertsoneniko xenofobia- edo tolerantzia-maila neurtzean ohikoa izaten den moduan, ez die galarazten errealitatearen, beren jarreraren eta euskal gizartearen azterketa nahiko doia egitea; izan ere, haien balorazio subjektiboa nahiko bat dator indizearen bidez egindako balorazioarekin.


Talde nagusiek tolerantzia-indizean lortutako puntuazioen bilakaera, 2008-2024



Azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu tolerantteen taldea pixkanaka posizioak hobetzen joan dela azken urteetan, 75 puntutik gorako posizioetan finkatu baita, baita euskal gizartearen jarrerak doitzen ari dela dirudien unean ere. Badirudi pertsona anbibalenteen taldea 60 puntu inguruko posizioetan finkatu dela. Bestalde, uzkurren taldeak ez du bilakaera hain konstantea, zerra-hortzak ageri baititu, eta COVID-19aren osasun-krisitik 14 puntu inguru galdu ditu.

Nolanahi ere, taldeen tamainak izan duen bilakaera azertu behar da bilakaeraren argazki doia izateko. Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugu.

Talde nagusien tamainaren bilakaera, 2008-2024 (%)



Taldeek tamainan eta posizioetan izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu tolerantteen taldea sendotzen ari dela, euskal biztanleriaren % 45-50 inguru hartzen baitu: 75 puntu inguruko puntuazio egonkorra ditu, eta horrek jarrera nabarmen tolerantetara erakusten du.

Bestalde, anbibalenteen taldea da historikoki kolektibo jendetsuena, euskal biztanleen % 40 eta % 50 artean ibili baita, nahiz eta azken urteotan tamaina murriztu duen. Garrantzitsua da gogoratzea talde hori hobetzen ari dela jatorri atzerritarreko pertsonetara jarraituz eta posizioetan (49,46 puntu izan zituen 2009an eta 59,27 puntu ditu gaur egun), baina oraindik ere argi-itzaletan mugitzen da.

Azkenik, uzkurren taldearen bolumenak behera egin du azken urteetan, eta euskal gizartearen % 15 inguruk osatzen du. Horrek esan nahi du pertsona intoleranteenak biltzen dituela, oso tolerantzia gutxi jarrera dutenak.

9



Ondorioak



ONDORIOAK

Aurreko urteetan esan genuen COVID-19aren osasun-krisia eta Errusiaren Ukrainako inbasioaren ondoriozko krisi humanitarioa zirela eta, euskal gizarteak elkartasun handiagoz erantzun zuela, eta atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarrera inklusiboagoa, solidarioagoa eta toleranteagoa erakutsi zuela.

Behin osasun-larrialdia gaindituta, eta Ukrainako gerraren kronifikazioak eta asilo-eskaerak egonkortzeak eragindako gizarte-larrialdia pasatu ondoren, euskal biztanleriak atzerritar jatorriko pertsonetikiko dituen jarrerekin eta iritziekin lotutako posizioak 2019ko eta 2020ko mailetara itzuli dira.

Atzerritar jatorriko pertsonen etorrera:

2024an, euskal gizarteak ez da nabari immigrazioa gaur egungo arazo nagusietako bat dela; badira kontu larriagoak, hala nola arazo ekonomikoak edo osasuna.

Immigratzaileen etorrerari dagokionez, biztanleriak haien presentzia dena baino handiagoztat jotzeko joera du, eta errolatuta dauden etorkinen kopuruaren bikoitza aipatzen du. Era berean, biztanleria, pixkanaka, immigrazioa egiturazko fenomeno dela pentsatzen hasi da, eta datozen urteetan etorkinen kopuruak gora egiten jarraituko duela uste du.

Immigrazio-politika:

Euskal gizartearen gehiengoak atzerritar jatorriko pertsonak etortzearen aldeko jarrera du, nahiz eta horien etorrera batez ere lan-arrazoiekin lotzen duen, hala nola lan-kontratu bat izatearekin (% 52,8). Egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen dagokienez, biztanleriaren % 82,2 erregularizatzearen alde dago.

Halaber, biztanleriaren % 93,7 asilo-eskatzaileei harrera egitearen alde agertu da, nahiz eta jarrera irekienak gutxitu egin diren Ukrainako gerrak eragindako gizarte-larrialdia pasatu ondoren. Familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazteei dagokienez, biztanleriaren % 78,3 haien integrazioa eta gizarteratzea lortzeko behar diren baliabide egokiak jartzearen aldekoa da.



Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera:

Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, euskal gizarteak jarrera positiboa du nagusiki, eta osasuna, hezkuntza eta laguntza juridikoa izatea eskubide unibertsalak direla uste du.

Beste eskubide batzuen kasuan, hala nola boto-eskubidea, familia berrelkartzekoa edo babes ofizialeko etxebizitzak lortzekoa, euskal biztanleriak egoera administratibo erregularrean dauden pertsonak soilik izan behar lituzketela uste du. Nolanahi ere, euskal gizartea, nagusiki, pertsona autoktonoek eta migratuek gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera berdinak izatearen alde dago.

Euskal gizartean dituen ondorioak:

Immigrazioak duen eraginari buruz dagoen iritzia irerparatzen badiogu, euskal gizarteak immigrazioaren irudi positiboa duela ikusten da, eta hainbat esparru eta espaziotan nabari da hori. Ekonomiari dagokionez, herritarren % 74,9ren iritziz, jatorri atzerritarreko pertsonak ezinbestekoak dira sektore batzuetan. Bestalde, euskal biztanleriak ez du immigrazioa jotzen soldaten jaitzierarena (% 69,6) erruduntzat.

Identitatearekin lotura eginez, biztanleriaren gehiengoak (% 73,0) ez du uste immigranteen etorrerak euskal nortasuna galaraziko duenik edo euskararen

garapena (% 64,7) geldiaraziko duenik. Euskal biztanleriaren iritziz, immigrazioak eragin positiboa du demografian ere; adibidez, gaur egungo biztanleria zahartuak dakartzan arazoak arintzen lagundu dezakeela uste du.

Bizikidetzak-ereduak eta kultura-ereduak:

Euskal gizarteak positibotzat jotzen du immigrazioak dakarren aberastasun kulturala; hala uste du herritarren % 74,7k. Biztanleriak ohitura kultural berriekiko duen irekitasunean nabari da.

Gizartean egokitze ahaleginari dagokionez, euskal herritarren ustetan, bizikidetzak hobetzeko, pertsona etorkinek eta autoktonoek, biek, egin behar dute ahalegina. Hala ere, uste dute ahalegin handiagoa egin behar duela migratutako biztanleriak.

Bigarren belaunaldiei dagokienez, euskal herritarrek atzeritar jatorriko gurasoak dituzten pertsonak beren parekotzat hartzen dituzte (% 87,7), eta bereziki aintzat hartzen dute Euskadin jaio izana (% 87,7).



Harremanetarako espazioak eta sinpatia:

Euskal herritarrek jatorri jakin batzuekiko duten sinpatia-mailari buruz galdetuta, euskal gizarteak begikoago ditu Mendebaldeko EBtik (6,7 puntu) eta Latinoamerikatik etorritako pertsonak. Bestalde, begikotasun-maila hori txikiagoa da jatorri magrebtarra duten pertsonetikiko (4,9 puntu).

Pertsona autoktonoen eta etorkinen arteko balizko bizikidetz-egoera batzuekiko jarrerari dagokionez, biztanleriaren gehiengoak oso jarrera irekia du bizitzako edozein esparru atzerritar jatorriko pertsonekin partekatzeke, eta, batez ere, lan-esparruan (% 89,8) edo esparru pertsonalena. Hala eta guztiz ere, mesfidantzazko jarrera gehiago ageri da bizilekuari dagokionez (% 60,8).

Estereotipoak:

Biztanleria gehiena ez dago ados etorkinei buruz dauden estereotipo negatiboekin, eta gehiago dira faltsuak direla uste dutenak egiazkotzat hartzen dituztenen aldean.

Hala ere, aurreiritzi batzuk errotuago daude, hala nola etorkinak gizarte-babeseko sistema neurritz kanpoko erabilerarekin, delinkuentziarekin eta matxismoarekin lotzen dituztenak.

Tolerantzia-indizea:

2024ko euskal biztanleriaren tolerantzia-indizea, haren jarrerak eta posizioak laburbiltzen dituen, 63,54 puntukoa da.

Azken urte hauetan izandako emaitzak oso baldintzatuta eta lotuta egon dira dinamika makroekonomikoekin zein beste fenómeno batzuekin, hala nola COVID-19a edo Ukraniako inbasioa. Ildo horretan, ikusten dugu Gerraren kronifikazioarekin eta asilo-eskatzailen gizarte-inpaktua desagertzearekin batera, euskal gizartearen jarreran nolabaiteko atzerakada egon dela, eta gatazka horren aurreko balioetara itzuli dela.



ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración